

USAPALA
Egoitz Tolosa
Andoain, 16 urte

1-USAPALA NAIZ... *ETA IPARRA:*

Dena ilun dago,
oraindik.
Baina badirudi dirdiraz janzten
ari dela oihaneko urre jada arrea.
Lagunak galdu ditut, bidaia luzearen
bolbora usainak itota, tiro hotsak gortuta.
Iparra galdu dut. Udazkenaren eritasun
babesgarrian pausatzera noa.

Eta galdu egin zaitut, habian errute
garaiko nire lumazko eguzkia,
galdu egin zaitut, urrumaka egiten zenidaneko
nire egarri sakonenaren ur-putzu hegalaria!

Eta behar zaitut.
Izan zarelako
maitemindu ginen eguneko firurika,
amodio-hegaldian abiatu gineneko askatasuna.

Inoiz baino gehiago behar zaitut,
izan zaitezen hegoalderako zero eta baso haue-
tan
nire itsumutila.
Amaigabea baitirudi espazioak

eta zabala itsasoak
bakarrik egin behar denean
aberrirako bidaia, aurten
tristeia.

2-USAPALA NAIZ...ETA SINBOLOA

Izadiaren zama jarri didate mokoan,
olibondo hostoaren berdea,
itun ditzadan uholdeen amaierak,
etxeratze-ontziaren kaieratze desiatua.

Bizitzaren zama zintzilikatu didate hegoetatik,
munduko odol guztiak xurgatu
etorkizun hautsiak bigundu eta
malkoak xukatu, xukatu, xukatu beharra.

Hitzaren zama josi didate urrumen,
armen durundia mututu
eta hizketarako bihotzak samurtu
eta mahaiak atondu beharra.

Geroaren zama margotu didate,
kolorez margo ditzadan hegoetan
Hego Amerika, Algeria eta Rwanda
eta bihotz minez gure euskal paisajea.

3-USAPALA NAIZ...ETA AMETSA

Sal dezagun iturburuetako ura
otarrean,

sal dezagun elur malutaren aratza
sugarretan,
sal dezagun nire bizkarrean lokartzen den mai-
tasuna
arrastirian
eta zure ile adatsen itzala laztanen ondorengo
loan.
Sal dezagun udazkenaren urrea gaztain erreen
postuan,
sal dezagun olibondoaren berdea Kremlin eta
Pentagonoko
atarietan,
sal dezagun barkamena esku luzatuen
ukituan.
Sal dezagun ametsa
doan.